

Ipar Irlanda ◆ Bake prozesua martxan

Keinu gisa, Eguberrietan Ipar Irlandako preso politikoak aske utzi ditu Londresek

Bake prozesuak etenik ez badu, 2000ko uztaileko behar dute denek libre egon

Erredakzioa / Donostia

Ipar Irlandako espetxe ezagunena, Long Kesh, ia hutsik izango da hurrengo bi asteotan. Londresko Gobernuak erabaki du Eguberrietako bai-

men berezia ematea preso politiko gutiz gehienei eta zenbait preso komuni. Bake prozesuak aurrera egin duenez, keinu bat izan dela azaldu du Peter Mandelson Ipar Irlandarako ministro britainiarrek. Presoen aska-

pena gogor kritikatu dute unionista erradikalek eta biktimen senideen elkarteek. «Badirudi bazterrean utzi gaituzten bakarrak biktimak gabela», kexu zen Willie Frazer Senide Errugabeen Familien elkarteko eleduna.

LONG KESH, Magaberry eta Magiligan espetxeetatik 335 preso aterako dira kalera atzo eta gaur artean Eguberriak eta Urtezaharra senide eta adiskideekin igarotzeko. Horieta asko preso politikoak dira, baina preso komunak ere badaude.

Esanguratsuen izan da Long Kesh ia hutsik geratzea, 70ko hamarkadaz geroztik hor bildu baitira Ipar Irlandako gatazka politikoarengatik espetxeratuta zeuden gehienak. Long Keshen bost preso politiko soilik geratuko dira: LVF Boluntario Loialisten Indarreko bost kide, zeinak epaiaren zain dauden.

12 egunez libre geratuko direnen artean oso atentatu ezagunen ustezko egileak daude: hala nola, 1988an Gibraltarren segurtasun indar britainiarrek hildako IRAko hiru kideren hiletetan zeudenen aurka tiro egin zuen Michael Stone loialista; 1996an IRAren su-etena hautsi zuen Docklandseko atentatuaren egile James McArdle; edo 1993an Shankill Roadeko taberna unionista baten aurka egiteagatik kondenatutako Sean Kelly errepublikanoa.

Mandelson ministroak azpimarratu zuenez, espetxetik ateratzeko baimen horrekin Londresek azpimarratu egin nahi du «prozesu politikoak aurrera nabarmen» egin



PAUL FAITH / EPA

Sean Kelly IRAko preso ama agurtzen, atzo goizean, Long Keshen.

duela, eta konfiantza eman nahi die talde armatuei desarme prozesuarekin jarrai dezaten. Iazko Ostiral Santuan bake akordioa izenpetu zenetik, jada 300 preso politiko errepublikano eta loialista geratu dira aske. Geratzen direnek askatasuna lortu beharko lukete uztaile bitartean, tartean su-etenen hausturarik ez badago.

Gerry Adams Sinn Feineko presidentea Londresen keinuari gehiegizko garrantzia

ez emateko eskatu zuen: «Ez dut asmo txarrekoa izan nahi, baina ez dut uste Peter Mandelson hainbesteko oihartzuna eman behar zionik».

Unionistak kexu

Neurriaren guztiz kontra mintzatu zen, berriz, Gregory Campbell DUP alderdi unionista erradikaleko parlamentarioa. Bere iritziz, «Mandelson prest dago terroristen

hitza sinesteko, su-etenean daudela esaten duten arren halakorik ez baitago».

Haserre agertu zen Willie Frazer biktimen elkarte bateko bozeramailea ere: «Hiltzeagatik, beldurtzeagatik eta torturazteagatik kondenatutako jendea espetxetik ateratzen utziko zaie, eta Gabon haue-tan mahaian eseriko dira beren familiekin indioilarra jatera, gure mahaietan lekuak hutsik dauden bitartean».

Desmilitarizazioaren lehen xehetasunak kritikatu ditu Sinn Feinek

■ KRITIKAZ jaso ditu Sinn Feinek desmilitarizazioari buruz Peter Mandelson Ipar Irlandarako ministro britainiarrek emandako lehen xehetasunak. «Bobby zakurrak txosten hobea egingo luke», adierazi zuen Gerry Kelly burukide errepublikanoak, Mandelsonen zakur berria gogoan zuela. «Sekuritate egin dute txostena, oraindik gerran ari eta beren lanpostuak gorde nahi dituztenek», argudiatu zuen Kelly.

Sinn Feinek bereziki kritikatu du Mandelson jakinarazitako txostenak eperik ez aipatzea. Izan ere, ministro britainiarrek argi utzi du desmilitarizazio handirik ezin dela egon talde armatuak dauden bitartean eta haien «mehatxua» present dagoenean.

Mandelsonek aurreratutako duenez, aurki Ipar Irlanda utziko dute bi mila soldaduk —15.000 daude gaur egun—. Halaber, Armagh eta Derryko bi atxiloketa zentro itxiko dira «ahal bezain lasterren» eta Armagh hegoaldeko dorre militarrek ere ziur aski bota egingo dira.

Mandelsonek agindu du legedi antiterroristaren erabilera mugatu egingo dela eta berdin egingo dela epaimahairik gabeko epaiketei buruz. Hiri erdialdeetan jarritako 20 hesi militar kenduko dira eta erdiko epean militarrek utzi egingo diote Poliziaren lana egiteari. Long Kesh espetxea ere 2000. urtearen amaieran itxi nahi du Londresko Gobernuak.